Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko uztailaren 24a, ostirala — 140 — Viernes, a 24 de julio de 2020



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa**

*Dirulaguntzak ematea emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jarduketetarako, emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakundeei zuzendutakoak. 2020ko deialdia.*

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2020ko uztailaren 16ko datarekin:

«Diputatuen Kontseiluak, 2019ko azaroaren 5ean egindako batzarraldian, onartu zuen Gipuzkoan dauden irabazi asmorik gabeko entitateei zuzendutako dirulaguntzak arautzea, dirulaguntza horien helburu bakarra delarik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan elkartegintza eta emakumeen partaidetza soziala sustatzeko asmoz, eranskinetan jasotako bi helburu ezberdinekin:

1) Elkarteak elkarteko kideentzat egiten dituen ohiko jarduera moduan antolatzen diren jarduketak dituzten proiektuak (1. eranskina).

2) Gizartearentzat orokorrean edo zaurgarritasun egoera handiena duten emakumeen talde berezientzat zuzendutako jarduketak dituzten proiektuak (2. eranskina).

Halaber, dirulaguntza horiek emateko 2020ko deialdia onartu zuen, eta baita 450.000,00 euroko gastuaren espedientea aldez aurreko izapidetzea ere, aurrekontu sail honen kargura: 1.170.700.481.00.01.2020.

Ondoren, Espainiako Gobernuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zuen lurralde nazional osoan, Covid-19 izeneko gaixotasunaren hedapenak eragindako osasun krisi larria zela eta. Era berean, Diputatuen Kontseiluak 2020ko martxoaren 17an onartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere administrazioaren funtzionamenduari eragiten zioten neurriak onartu ziren, osasun krisiak sortutako egoeraren aurrean.

Horren ondoriozko jarduera ekonomikoaren paralisi azkarrak gure ekonomiaren sektore guztiei eragin die, eta, horren ondorioz, batetik, Foru Aldundiak aurreikusitako diru sarrerek behera egin dute, eta, bestetik, egoerak bereziki eragindako sektore jakin batzuetan gastu behar berriak sortu dira edo lehendik zeudenak handitu egin dira. Testuinguru horretan, gaur egun beharrezkoa da aurreikusitako baliabideak lehentasunezkotzat jotzen diren beste behar batzuetara bideratzea.

Ildo horretan, onartutako deialdiaren bigarren atalean ezartzen denez, gastu espedientea aldez aurretik izapidetzen denez, dirulaguntzak emateko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontu Orokorretan, diru laguntza ematea ebazten den unean.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

**Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres**

*Concesión de subvenciones destinadas a asociaciones de mujeres y otras entidades sin ánimo de lucro para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres. Convocatoria 2020.*

El diputado general, con fecha de 16 de julio de 2020, ha dictado el siguiente decreto foral:

«El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 5 de noviembre de 2019, aprobó las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones a entidades sin ánimo de lucro guipuzcoanas, cuyo único fin sea promover la igualdad de mujeres y hombres, al objeto de fomentar el asociacionismo y la participación social de las mujeres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con dos destinos diferentes, recogidas en sendos anexos:

1) Proyectos que contengan actuaciones que se configuren como actividades habituales realizadas por la asociación para las personas asociadas (anexo 1.º).

2) Proyectos que contengan actuaciones dirigidas a la sociedad en general o a colectivos de mujeres específicos con mayor vulnerabilidad (anexo 2.º).

Asimismo, aprobó la convocatoria correspondiente a 2020 de las citadas subvenciones, así como la tramitación anticipada del correspondiente expediente de gasto, por importe de 450.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1. 170.700.481.00.01.2020.

Posteriormente, mediante el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, el Gobierno de España decretó el estado de alarma en todo el territorio nacional, con motivo de la grave crisis sanitaria generada por la expansión de la enfermedad denominada Covid-19. Así mismo, mediante acuerdo aprobado por el Consejo de Gobierno Foral el 17 de marzo de 2020, se aprobaron las medidas a adoptar por la Diputación Foral de Gipuzkoa que afectaban al funcionamiento de su administración, ante la situación generada por la crisis sanitaria.

La consecuente y rápida parálisis de la actividad económica ha afectado a todos los sectores de la economía, con la doble consecuencia de una brusca caída en la recaudación de los ingresos presupuestados por esta Diputación Foral, así como la aparición de nuevas necesidades de gasto o el incremento de las mismas en determinados sectores especialmente afectados por la situación generada. En dicho contexto, en el momento actual resulta necesario reorientar los recursos previstos hacia otras necesidades que se estiman preferentes.

En este sentido, en el apartado segundo de la convocatoria aprobada se establece que, dada la tramitación anticipada del expediente de gasto, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2020 en el momento de la resolución de la concesión.

EK\CV GAO-I-2020-03550

Era berean, aipatutako osasun krisiaren ondorioz, beharrezkotzat jo zen eskaerak birformulatzeko prozesu bat ezartzea, aurkeztutako proiektuak gauzatzeko baldintza berrietara egokitu ahal izateko. Prozesu horren ondorioz, elkarte batzuek eskaerari uko egin diote edo aldatu egin dituzte. Horregatik guztiagatik, deialdi horretarako hasieran aurreikusitako zenbatekoa 400.547,00 eurora murriztu da.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, baita laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta betebeharrak, eta horiek baloratzeko ezarritako irizpideak ere, 9. oinarrian aurreikusitako Batzorde Ebaluatzaileak deialdiaren ebazpen proposamena prestatu du.

10.1 oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, diputatu nagusi honi dagokio deialdia erabakitzeko eskumena. Halaber, 13.3. oinarrian ezarritakoaren arabera, une honetan dirulaguntzak ordaindu behar dira, ordainketa aurreratu gisa.

Bestalde, 10.2 oinarriak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1, b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da dirulaguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia dela eta, diputatu nagusiak

EBAZTEN DU

*Lehengo.* Baimentzea laurehun mila bostehun eta berrogeita zazpi euroko (400.547,00) gastua, aurrekontuko 1.170.700.481.00.01.2020 kontu sailaren kargura, ondorengo dirulaguntzen 2020ko deialdiari aurre egiteko: Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, horien helburu bakarra delarik emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan elkartegintza eta emakumeen partaidetza soziala sustatzeko asmoz.

*Bigarrena.* Ematea eta ordaintzea zerrendan adierazten diren erakunde onuradunei jarraian adierazten diren dirulaguntzak, zehazten diren zenbateko partzialengatik, aurrekontuko 1.170.700.481.00.01.2020 kontu sailaren kargura:

a) 1. eranskinari dagozkionak, elkarteak elkarteko kideentzat egiten dituen ohiko jarduera moduan antolatzen diren jarduketak dituzten proiektuak diruz laguntzeko. Guztira hogeita lau mila eta hirurogei eta bederatzi euroko (24.609,00) gastua.

Así mismo, a consecuencia de la citada crisis sanitaria, se consideró necesario establecer un proceso de reformulación de las solicitudes para poder ajustar las mismas a las nuevas condiciones de ejecución de los proyectos presentados. A resultas de dicho proceso, algunas entidades han presentado su renuncia a la solicitud o modificado las mismas. Por todo ello, el importe inicialmente previsto para dicha convocatoria se ve disminuido a 400.547,00 euros.

Teniendo en cuenta todo lo señalado, así como los requisitos y condiciones a cumplir para optar a las ayudas y los criterios de valoración para la concesión de las mismas, la Comisión Evaluadora prevista en la base 9.ª ha elevado la correspondiente propuesta de resolución de la convocatoria.

De conformidad con lo dispuesto en la base general 10.1, corresponde a este diputado general la competencia para la resolución de la convocatoria. Además, y de acuerdo con lo establecido en la base 13.3, resulta necesario efectuar en este momento el abono de las subvenciones, como pago anticipado.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 10.2 y en el artículo 45.1, b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Así mismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, el diputado general

RESUELVE

*Primero.* Autorizar un gasto por importe de cuatrocientos mil quinientos cuarenta y siete euros (400.547,00) para hacer frente a la convocatoria 2020 de las subvenciones a entidades sin ánimo de lucro guipuzcoanas cuyo único fin sea promover la igualdad de mujeres y hombres, al objeto de fomentar el asociacionismo y la participación social de las mujeres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con cargo a la partida presupuestaria 1.170.700.481.00.01.2020.

*Segundo.* Conceder y abonar a las entidades beneficiarias relacionadas las subvenciones que se indican a continuación, por los importes parciales que se señalan, de la convocatoria 2020 de referencia, con cargo a la partida presupuestaria 1.170.700.481.00.01.2020:

a) Correspondientes al anexo 1.º, subvenciones destinadas a proyectos que contengan actuaciones que se configuren como actividades habituales realizadas por la asociación para las personas, con un gasto total de veinticuatro mil sesenta y nueve euros (24.069,00).

| *Erakunde onuradunak*<br>*Entidades beneficiarias* | *Lagundutako proiektuak*<br>*Proyectos subvencionados* | *Zenbatekoa*<br>*Importe*<br>*(€)* |
|---|---|---|
| Uztai Belar | Formación interna: Miércoles formativos para continuar en el proceso de empoderamiento personal | 3.829 |
| Haizea | Cine forum, reflexionando para empoderarnos | 5.830 |
| Mujeres Intxaurrondo Berri | Formacion para empoderamiento gestionando mejor la asociación | 2.358 |
| Eragin | Conocer es comprender: Empoderamiento cultural / Ezagutzea ulertzea da: Ahalduntze kulturala | 2.397 |
| Killirikupe | Mujeres y mecanismos de dominación patriarcal | 4.741 |
| Zarakatun | Batukada Feministaren bidez berdintasuna lantzen | 4.914 |
| Guztira / Total | | 24.069 |


EK\CV GAO-I-2020-03550

b) 2. eranskinari dagozkionak, gizartearentzat orokorrean edo zaurgarritasun egoera handiena duten emakumeen talde berezientzat zuzendutako jarduketak dituzten proiektuak. Guztira hirurehun eta hirurogeita hamasei mila laurehun eta hirurogeita hemezortzi euroko (376.478,00) gastua.

b) Correspondientes al anexo 2.º, subvenciones destinadas a proyectos que contengan actuaciones dirigidas a la sociedad en general o a colectivos de mujeres específicos con mayor vulnerabilidad, con un gasto total de trescientos setenta y seis mil cuatrocientos setenta y ocho euros (376.478,00).

| *Erakunde onuradunak*<br>*Entidades beneficiarias* | *Lagundutako proiektuak*<br>*Proyectos subvencionados* | *Zenbatekoa*<br>*Importe*<br>*(€)* |
|---|---|---|
| Asociación de mujeres separadas de Gipuzkoa | Asesoramiento jurídico de mujeres | 7.102 |
| Emakume- La mujer | Jabekuntza pertsonaletik, gizarte jabekuntzara baterantz | 6.800 |
| Emeki | Emeki, emakumeak erdigunean jarriz | 16.748 |
| Ebel | Emakume Baserritarren duintasuna bermatuz | 8.883 |
| Kimetz | Acciones contra la violencia machista | 3.667 |
| Plazandreok | Feministaldia 2020 | 12.110 |
| Altzoa asociacion de mujeres viudas de Eibar | 25 años ya son historia | 3.048 |
| Aspegi | Encuentros con perspectiva de género - Creatividad en entornos de igualdad en la empresa | 10.273 |
| Hegaldi | Actividades formativas con perspectiva de género y empoderamiento para las mujeres reclusas del Centro Penitenciario de Martutene | 14.414 |
| Laguntza | Viaje hacia la autonomía, acompañadas: diferentes itinerarios de empoderamiento | 19.440 |
| Jaizkibel konpainia | Campaña de sensibilización e información sobre los derechos de las mujeres a participar en condiciones igualitarias en las fiestas de Hondarribia 2020. | 7.775 |
| Emagin | Bizitzak bizigarri: zaintza lanen berrantolaketa demokratiko baterantz | 19.015 |
| Donostiko bilgune feminista | Kolonialismorik gabeko lurraldeak eta bizitzak. Euskal feministen VIII. topaketak | 18.579 |
| Euskal herriko emakumeen ahotsak | Papel desempeñado por las mujeres en la resolución de conflictos. Enseñanzas para el caso vasco. | 7.259 |
| Hitzez baserriko emakumeen elkartea | Landa eremuko emakumeen jabekuntza | 9.213 |
| Bekoz beko | Bekoz Beko, ElokaldeTodas 2 | 8.177 |
| Red de asociaciones de mujeres de Gipuzkoa Redagi | Parar, pensar, ver y vernos desde una mirada feminista: El empoderamiento personal y colectivo como cimientos | 15.837 |
| Gaurko andreak | Acciones de sensibilización para la toma de conciencia de desigualdades de género y empoderamiento de las mujeres y niñas. | 11.874 |
| Bidez bide | Itinerarios de aprendizaje para el empoderamiento y la acción | 20.582 |
| Asade | El empoderamiento y la corresponsabilidad de las mujeres desde y para el cuidado | 7.106 |
| Zabife | Osatze feminista: bidea egiten badakigu | 9.908 |
| Bozak | Indarkeria matxistaren aurka urratsez urrats | 9.876 |
| I.M.M.E | Hacia el empoderamiento | 6.127 |
| Harituz | Proyecto madejas contra la violencia sexista: tejiendo redes | 18.038 |
| Asociacion Sim romi gipuzkoaqe | ROMIPEN. Escuela de empoderamiento para la prevención de la violencia de genero con mujeres gitanas de Gipuzkoa | 21.358 |
| Bidasoaldeko elkarte feminista | Empoderamiento de las mujeres, siempre empoderamiento: diversas, diferentes, de distintas generaciones. Vías para desarrollarlo | 15.170 |
| Mara Mara | El amor: construyendo vínculos amorosos desde el buen trato | 8.797 |

EK\CV GAO-I-2020-03550

| *Erakunde onuradunak*<br>*Entidades beneficiarias* | *Lagundutako proiektuak*<br>*Proyectos subvencionados* | *Zenbatekoa*<br>*Importe*<br>*(€)* |
|---|---|---|
| Parean | Emakume migratzaile(ak) artean, Iraungo kartografia emozionala | 21.136 |
| Ara!Gorputz elkartea | Hilerokoaren formakuntzak eskoletan | 6.693 |
| Asun Casasola elkartea | Asun Casasola ipuin lehiaketa: Sustraietatik eraldatuz | 20.915 |
| Mariren alabak | Acompañamiento integral a mujeres víctimas de violencia machista | 10.558 |
| Guztira / Total | | 376.478 |

*Hirugarrena.* Ezestea jarraian adierazitako eskaerak, elkartearen xede eta jarduera esparru bakarra ez baita emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea (2. oinarria).

*Tercero.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación, dado que el único fin y ámbito de actuación de la asociación no es la promoción de la igualdad para mujeres y hombres (base 2.ª).

| *Erakundea*<br>*Entidad* | *Proiektua*<br>*Proyecto* |
|---|---|
| Fundación Izan | Estudio "La influencia de la socialización de género en las adicciones" |
| Emakume pilotarien elkartea | Emakume pilotarien hitzaldiak |
| Goierri gorri futbol kluba | Goierri gorri futbol klub |

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko uztailaren 16a.—Juan José de Pedro, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria. (3550)

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 16 de julio de 2020.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro. (3550)

EK\CV GAO-I-2020-03550